



OGASUN ETA EKONOMIA SAILA
Kontratazio Publikoaren Aholku
Batzordea

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y
ECONOMÍA
Junta Asesora de Contratación Pública

3/2019 TXOSTENA, OTSAILAREN 26KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEARENA

**XEDEA: ERABAKI-PROPOSAMENA, GOBERNU KONTSEILUARENA,
KONTRATAZIO PUBLIKORA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ORDAINSARIAK
BERDINTZEKO KLAUSULAK ETA SOLDATA-ARRAKALAREN KONTRAKO
NEURRIAK SARTZEARI BURUZKOA.**

I.- AURREKARIAK.

Ogasun eta Ekonomia Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018-2021eko Planaren barruan, kontratazio publikoan jarraibide orokorren bidez berdintasuna sustatzea da lehenengo xede estrategikoa.

Xede hori beste hiru xedetan banakatzen da, eta honako hauek dira:

- Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen osoko bilkuran aurkeztea kontratazioan berdintasuna egoteko klausulei buruzko gomendioen agiria.
- Gobernu Kontseiluaren 2008ko Erabakia, kontuan hartu behar diren gizarte-irizpideei buruzkoa, aldatzea.
- Soldata-arrakalari buruzko exekuzio-klausula berezi bat sartzeari, dagokion kontrol-neurria diseinatu ondoren.

Eta, xede horiek betetzeari begira, kontratu publikoetara berdintasuna egoteko klausulak sartzeari da 2019rako lehentasunezko ekintza.

Testuinguru horretan, kontratazio publikora emakumeen eta gizonen ordainsariak berdintzeko klausulak eta soldata-arrakalaren kontrako neurriak sartzeko Instrukzio bat egin da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak behar bezalako txostena egin behar du.

Hori dela-eta, Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena egin da, orain esku artean duguna, eta Batzordeak horri buruzko txostena egingo du.



II. - AURRETIKO GOGOETAK.

TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.b) artikulua honako zeregin hau jasotzen du Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen aholku-eginkizunen barruan: «Kontratazio publikora honako hauek lortzeko neurriak sartzeko mekanismoen proposamenei buruzko txostena egitea, arloan eskudunak diren erakundeek proposatzen dituztenean:

- gizartearen, ingurumenaren eta hizkuntzaren arloko eta aukera berdintasunerako xedeak bermatzea.»

116/2016 Dekretuaren 30. artikulua arabera Batzorde honen komisiorei egotzitako eskumena ez denez, Aholku Batzordearen osoko bilkurari dagokio txosten hau onartzeko eskumena.

III. - EDUKIA.

KONTRATAZIO PUBLIKORA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ORDAINSARIAK BERDINTZEKO KLAUSULAK ETA SOLDATA-ARRAKALAREN KONTRAKO NEURRIAK SARTZEKO Instrukzioaren onarpena jasotzen du erabaki-proposamenak (eranskin modura sartu da Instrukzioa).

Era berean, Gobernu Kontseiluaren 2008ko apirilaren 29ko Erabakiaren eranskinean sartutako Instrukzioaren atalak aipatzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta horren sektore publikoko erakundeen kontratazioan (Instrukzio berriak ukituko dituen erakundeei dagokienez) gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta bestelako politika publikoen ondoriozko irizpideak sartzeari buruzkoa da Erabakia.

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Instrukzioaren testuan, eta, beraz, baita erabaki-proposamenaren testuan ere, kontratazio publikora berdintasunerako klausulak eta, berariaz, soldata-arrakala deuseztatzeko neurriak sartzea sustatu nahi da, eta, are, bereziki betearazi beharreko baldintza gisa, gutxienez politika sektorial batean horiek ezartzera behartzen du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari helduz (9/2017 Legearen bidez, Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak).

Zentzu horretan, Instrukzioak zabal-zabal banakatzen dituen 1.3., 71., 90.3., 124. artikuluei eta hurrengoei eta 145.6., 148., 149.4., 157.5., 201. eta 202. artikuluei arreta berezia jarritz, Legeak neurri horiek sartzeko eskaintzen dituen aukeren tratamendua egokia, proportzionatua eta egiaztagarria dela esan behar du Batzorde honek; beraz, ez dio inolako oztoporik ikusi aztertutako testuari.

V.- ONDORIOAK.

Hala, bada, proposatu den erabakiari eragozpenik topatu ez zaionez, aldeko txostena ematen diogu.